

ETB euskaraz!

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Azterketarako Lantaldeak inkesta handi bat egin berri du, euskararen ezagutzapenez, erabilpenaz eta euskararekiko jarrez.

Artean, ikertu eta argitaratu gabe dago inkesta hori. Puntu-txo bat bakarra eman da argitara, nik dakidalarik, Mikel Marañoni eginikako elkarrizketa baten bidez: ETB edo euskal telebistari buruzkoa.

Jendearen ustetan, zein hizkuntzatan lanegin behar du telebista berri horrek? Osoki euskaraz? Osoki erdaraz? Erdizka batean eta bestean? Zer euskaraz eta zer erdaraz?

M. Marañonen erantzunetan ageri denez, gehiengoak euskarari ematen dio lehentasuna. Baina ez bakartasuna. Telebista berria ehuneko ehunetan euskaraz nahi dutenak Gipuzkoan % 18,3 bada, % 9 bakarrik dira Bizkaian eta gutxiago Araban. Euskaraz tutik nahi ez duenik ere bada: % 10. Programa guztietako % 40-60 euskaraz nahi bide du gehienak.

Beude bere horretan zifra hauek.

Goazen xehatuz: zein programa euskaraz eta zein erdaraz? Hona bigarren koska.

Lehenengoari eman zaion erantzunak euskararekiko epeltasuna azaltzen badu, bigarrenari emandakoak jendearen ikusera diglosi-koa uzten du agerian.

Zein programa, ba, euskaraz? Zeintzu izango dira, ba!: euskal folklorea, herri-kirolak, haurrentzako programak eta marrazki animatuak. Eta erdaraz? Noski: teleberriak, filmak, teatroa... Betikoa. Betiko erdibiketa: euskara haurren mundurako eta folklore lokalerako; eta erdara, dimensio unibertsalekoa, informaziorako, kulturarako. Nihil novum sub sole! Zein ongi barneratu dugun kultura nagusiak eta aginteak urtetan ezarritako ideologia!

Zifra, datu eta eritziok hor daude. Ongi ala gaizki jasoak? Ez dakit. Ni neu ez naute harritzen, egia esan. Ez zaizkit gustatzen, hori besterik da, baina ez nintzateke gehiegi harrituko errealtatearen ispilu leial izango balira ere.

Baina, kasu! Diagnosi bat, diagnosis da, ez sendagailua. Esan nahi bait dut, inkesta soziologiko batek, gehienez ere, errealtatea agertarazten duela; ez duela aginte-indarrik. Agindu, indar politikoak agintzen du; gure kasuan, oraingoz bederen, Eusko Jaurlaritzak. Horregatik, inkesta gora-behera, euskal telebistak zein hizkuntzatan izan behar duen galderak zutik dirau. Inkesta batek egoceren (berdin egocera alienatuaren) berri ematen du, hori bai, baina ez du politikarik markatzen. Gehiengoaren

eritziaren alde edo kontra erabakiak hartzea, hori aginteari dagokio, Gobernuari, horixe da gobernatzea. «Gouverner, c'est choisir» esan eta idatzi ohi zuen hilberri den P. Mendès France frantses politikoa miretsiak. Hautapenok, esango nuke, inkestetan baino areago Gobernuaren beraren filosofian oinarritu beharko dutela. ETBko hizkuntza hautapen batek erabakiko du, edozein modutara estali nahi bada ere.

Euskal Herria ez dela guk nahi bezain euskaltzalea, abertzalea? Kontrakoa litzateke harritzekoa, jasan dugun frankismoa eta frankismoa kontutan edukita. Gobernu baten eginkizuna horretarako dago: errealitatea ezagutzeko bai, baina batez ere aldatzeko. Gure kasuan, euskararen eta euskal hiztunon (euskaldunon) esku-bideez eta euskara ikasi beharraz herria kontzientziaraztea ez ote da ekintza politikoa, Gobernu baten lana, Gobernu abertzale baten lehen eginkizunetako bat? Euskal telebista euskaraz egitea, eta aukera horren zuzentasuna ulertaraztea, horra Gobernu abertzale baten bi eginkizun erabakior. ■ *Joan Mari Torrealdai.*